

# BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

623. zkia.
XV. urtea
2007ko uztailaren 20a

**Alfredo Etxeberria**, Elgoibarko alkatea

# «Kalean herritarren beharrak entzuteko eskatzen didate»

[ **KILIBARREN** ] SANTANA JAIAK • [ **KULTURA** ] EUSKAL JAIAK



www.residencialgeminis.com
elgoibar
48 etxebitza, 2 eta 3 gelakoak
117 garaje eta 76 trasteleku
259.000 €-tik
garaje eta trasteleku barne
(43.093.974 ptas.)
Residencial Géminis
Tfno.: 943 74 80 92
infolur
Grupo GSI
Espacios de Bienestar
Argibideak: INFOLUR Antonio Arrillaga, 1 behea. 20870 Elgoibar. info@infolur.net - www.infolur.net




ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA
Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!
Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!
ORDUTEGIA
10:00etatik-12:30era
15:00etatik-20:30era
San Frantzisko, 43 - 1. solairua
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR
Ego Gain, 4 behea
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

# ZOZOAK BELEARI...



**AMAIA GORROTXATEGI**

Bat, bi eta hiru!! Isilik denok! eta hiru urteko umeak isil isilik Ainhoa.

Normalean horren irribarretsu berba egiten diegu, beldurtuta begiratzen digutela haserretuz gero. Egunero goizean goiz egunonak eman eta gurasoak agurtu ostean irribarre egiten digute, zer egingo dugun jakin nahian.

Astea pasatzen dugu igerilekuko eguna iristearen zain, baina eguraldia... ez da oso ondo portatu gehienetan. Baina zer ardura du ba horrek? Euri azpian ere pasatu dezakegu guk ondo, korro txirinbolo kantatuz.

Polita da egunero haurrak sokari heltzen dioten momentua. King-kongetik Urasandirako bidea hastear izaten den une hori... eta bidea. Zenbat kantatu ote dugu honezkero.

Polita da ikustea San Rokera bidean nola abiatzen den marea berdea. Ume zein begirale, denok Atxutxiamaikaren kamisetarekin, zizare berde handi bat bagina moduan.

Txikiak dira haurrak oraindik. Inozenteak, lotsatiak gehienak. Lau pareten artean botatako barre guztiak erdi ahaztu, nahastu egiten zaizkie kalean ikusiz gero. Eta etxekoen hanken atzean ezkutatuta begiratzen digute, horrela, behetik gora, zain, guk kasu noiz egingo. Politak dira irekiak Ainho. Zuk zer, ez diozu laga begirale izateari ezta??

**«Zuk ez diozu laga begirale izateari, ezta?»**

AMAIA

**«Ez ote du inork horrelako desgraziarik nahi niretzat»**

AINHOA



**AINHOA MENDIBIL**

Ez mesedez! Ez ote du inork horrelako desgraziarik nahi niretzat!! Kar, kar, kar... ez diot utzi ez. Oraintxe itzuli naiz udaleku itxietatik. Maletak ere desegin gabe ditut! Oraindik ere han nagoela sinestu nahi dut. Sinestu, esnatzerako, umeak izango ditudala inguruan, ni margotu nahian, eta esnatu beharko dudala salto batean, gosaria prestatzeko berandu ibiliko naizelako. Eta pentsatu nahi dut, ez dudala bakarrik gosalduko. Pentsatu nahi dut garrasi egin beharko dudala, gaztetxoek esnea edo zukua, zer nahi duten jakiteko. Eta sinesten dut hori dena, halaxe izan delako, eta izatea nahi dudalako. Ez dudalako betiko martxara itzuli nahi. Nahi dut haserretu haurrek ez dutenean euren hitza betetzen, ibili kotileoan begiraleon artean, umeen kontuetaz, eta eurekin jolastu nahi dut, jolasten erakutsi nahi diet. Barre egin nahi dut eurekin, eta nahi dut zikindu goitik behera, umeek botatako zikinkeriarekin, eta margotu nahi dut gorputz guztia, tenperarekin. Joango gara gero berriz ere alboko baserrira mangera bila. Nahi dut begiraleei begiratu, eta begirada aldatzea. Sentitzea begiekin esaten diogula elkarri, onak gara, demasa izan da, egongo gara berriz ere horrela noizbait.

Sinestu nahi baitut, baietz. Egongo garela horrela berriz. Kasuistikaren arabera.

Hau da, post-udaleku krisi larriak jota nagoela Amaia. Eta eskerrak eman beharrean, disfrutatzen lagundu didaten horiek guztiei. Paaaaaaaaa!!!!

> “Umea isilik, okerren bat egiten ari den seinale”
>
> Esaera zaharra

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, bestea-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Oporretan ere lanean

Bizirik eta etxean nahi ditugu. Gure senide eta lagunak espetxera, ihesera ala heriotzara eraman dituen arrazoi politikoak konpondu eta gure senideak etxeratu egin behar ditugu.

Baina benetako konponbidea eskatzeaz gain, gure senideen eskubideen defentsan buru belarri lanean jarraitu behar dugu. Testigantzak eman eta konpromisoak jasoz. Konpromisoetatik eratorritako presioarekin, bi estatuak gaixotasun larriak dituztenak eta zigorrak betetakoak askatzera behartuz. Gure senide, preso eta iheslari politikoen kolektiboak eskubide guztien jabe izanik, Euskal Herriratzera behartuz.

Ez digute ez treguarik, ezta oporrik ere eman. Gure sufrimendua bultzatzen ari dira, helburu politikoak lortu asmoz. Gure sufrimendua luzatzen ari dira, interes politikoak tarteko.

Gaixotasun larriak dituztenak, nahiz zigorrak betetakoak ez askatzeak, isolamendu larriek, gure senide presoak gero eta gehiago urruntzeak eta iheslarien aurkako etengabeko jazarpenak hala erakusten digute.

Guk ere, beraz, udan etenik gabeko lanean jarraitu behar dugu gure eta senideen egoerak nahiz gure eskakizunak lau haizetara zabalduz. Konpromisoak bilduz. Horretarako, hurrenez hurren egingo ditugun ekimenak ondorengoak dira: uztailaren 27an Etxeratek antolatutako azken enkartelada Plaza Handian; uztailaren 28an errepideetara irtengo gara eta abuztuaren 5ean hondartzetan egongo gara.

Guztiok gonbidatu nahi zaituztegu ekimen hauetara, egoera larri honen aurrean denon artean testigantzak eman eta konpromisoak bildu ditzagun.

**ETXERAT**

## Lau urte eta gero hau!

Joan zen astean osatu zen Elgoibarren Udal ez demokratiko berria. Lau urteren ostean, PNV-EAk uko egin dio herri honek eskatzen zuen aldaketari, uko egin dio bigarren indarrak udalean -Plenoan- hitz egiteari. EAren laguntzaz, 4 urterako jauntxoen gobernua eratu da. Alde batetik, ANV, bigarren indarra izanik, udaletik kanpo geldit du da, ez dizkigute gure 3 ordezkariak onartu-eta. Bazegoen aukera hori egiteko, baina ez dute nahi izan.

Izatez, Euskal Herrian, 77 ordezkari lapurrek ez dute -ez dagokien- tokia hartu; Elgoibarren, ordea, bai. Izatez, lehen Azkoitian eta, orain, Lizartzan egin duten bezala, bazegoen 182 artikulua aplikatzerik, baina Elgoibarren ez dute nahi izan. Izatez, beste herri batzuetan bezala bazegoen lapurrak dimititzerik, baina Elgoibarren ez dagokiena eskuratu dute 3 zinegotzik.

Elgoibarko Udala, beraz, berriro ere, Apartheid politikoaren aldeko agertu da, tamalez, gure bailaran beste gutxi bezala.

Eskoriatzan, Arrasaten, Bergaran, Antzuolan, Mallabian, Soraluzen, ANVk alkatetzak dauzka, EAren laguntzarekin, azken kasuan; Deban, EAk dauka alkatetza, ANVren laguntzarekin. Aretxabaletan, ANV -legez kanpo- lehen indarra izanik, bideak irekitzen ari dira Udalean parte hartzeko, lapur batzuk dimititu eta guzti egin dutelarik. Eta hemen, ez digute Udalean sartzen ere uzten.

PNV-EAk batzordeak eta gobernu batzordea osatu ditu, bien arteko akordioaz Udalean beste guztiei ateak itxiz, ez dagokien errepresentazioa eskuratuz. 1.650 bozka eta 5 zinegotzi -gehi 2 lapur- izatetik, gobernu batzordean bostetik 4 ordezkari izango ditu, bat EAk. Horrela ulertzen dute Jauntxoek demokrazia: bozka eman lau urtean behin, eta nahi dutena egin, herritarren nahiari barre eginaz. Despotismoaren oinarriak jarri dituzte, oraingoan ere.

PNV-EAko Udalak hartu duten lehen erabakia ez da izan Merkadilloa herrira ekartzea, herriak eskatzen duen bezala; ez da izan Urasandiko aparkalekua herritarrentzat berreskuratzea; ez da izan herritarren parte hartzea bermatzea batzorde eta plenoetan, ez. Lehen erabakia, euren buruari 66.000 eta 59.000 euroko soldata jartzea izan da. Hori bai dela herriarengan pentsatzea. Bitartean, ANVko inguruko alkateak euren soldata jaisten hasi dira lehen erabaki bezala, 2500 euro baino gehiago inork irabaziko ez duelarik, Herri handiagoak izanik ere.

Hau guztia ikusirik, esan dezakegu, oraingoz behintzat, Elgoibarren ez dagoela aldaketa izpirik, Elgoibarren Jauntxoen eta morroien Udal ez demokratikoa eratu dela, 2007ko ekainean. Nahiko genuke erraturik ibiltzea, eta denborak esango du.

Dena den, ANV prest dago egoera honi buelta emateko, prest gaude Udalarekin hitz egiteko, eta pausuak emateko –denok ematen baditugu- egoera ez normalizatu hau konpontzeko bidean. Gogoa behar da, guk badaukagu.

**ELGOIBARKO ANVKO ZINEGOTZIAK**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

[b]

barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:
ELGOIBARKO IZARRA

KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Irati Agirrezaldegi PUBLIZITATEA Eider Iriondo MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives INPRIMATEGIA Gertu TIRADA 4.650 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## KEXAK

• San Pedroko ziburuak puskatuta daude: "Asteburuetan jende asko joaten da San Pedrora egun pasa. Umeekin joaten gara gehienetan, leku ederra da umeekin ibiltzeko, baina kolunpioak pusktatua eta arriskutsu daude. Dagokionari konpontzeko eskatuko nioke.".

• Herriko kaleak oso labainak dira: "Euria egiten duenean kalera ateratzeko beldurrez egoten gara. San Frantzisko kalea oso labainkor jartzen da, eta kontu handiz ibili behar izaten gara. King-Kong azpia eta Loritoneko aldapa ere oso arriskutsuak dira. Jende asko erori izan da ingurune honetan. Herriko erdigunea dela kontuan izanik, zerbait egin beharra daago lehen bailehen. Mila esker".

• Urasanditik errepidera ateratzeko bidegurutzean lurra oso labainkor dago: "Pilar Ikastetxeko bide gurutzean ur kanala dago eta uraren ondorioz, lurra gastatuta dago. Euria egiten duenean igartzen da batez ere, baina gainontzean ere, arriskutsu dago, auto guztiek irrist egiten dute-eta. Lurra zulatu edo pikatu daiteke erruberak ondo heltzeko eta ezer ez gertatzeko. Batek baino gehiagok izan du sustoren bat errepidera ateratzerakoan eta ezer larriagorik gertatu aurretik, zerbait egitea komeni da".



## TXALOAK

• Txalo bero Kirol Patronatuari Mintxetako igerilekuetan egindako lanagatik: "Oso kritikatua izan da Kirol Patronatuaren lana, baina oraingo honetan txalo bat merezi dute. Mintxetako igerilekuak oso ondo daude, Elgoibar bezalako herri batentzat kristona da horrelako leku bat edukitzea. Trena hartu eta hondartzara joatea zoramena izaten zen. Mintxetan primeran egoten gara eta umeek bikain pasatzen dute. Ura apur bat hotza dagoela esan beharra daukat, baina ez da kexatzeko arrazoia".



• Txalo bero bat Elgoibarko Udalari argazki zaharren erakusketa antolatzeagatik: "Gure gaztarora bidaiatzeko aukera bikaina eskaini digu Udalak argazki zaharren erakusketa honekin. Ahaztuta zeuden bizipen mordoa etorri zaizkit gogora erakusketa honetan eta emozionatu egin naiz. Oso lan polita egin duzue".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
☎ 943 74 41 12

Elgoibarko Udala
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DANOBAT
kutxa
GOITI
GRUPO DANOBAT



# URRUZUNOREN *luma*

## *Norbaitek esan du...*

Zurrumurrua zabaldu zen. Norbaitek esan zuen beste norbaitek esan ziola norbait ikusi zuela erratz gainera igota Plaza Handia zeharkatzen. Sorgin bat zela pentsatu zuten eta aurrerantzean herritar guztiek sorgin izenarekin berbataiatu zuten eta eskuarekin seinalatuz haurrei esaten zien urruntzeko emakume haren ingurutik, arriskutsua zela, gaiztoa, eta bere erratzaren gainean hartuta urrun eramango zituztela, familiarengandik apartatuz. Zurrumurrua zabaldu zen eta ustezko sorginak ezin izan zuen ezer egin horren kontra. Azkenean berak ere sinetsi zuen noizbait erratz gainera igota atera zela kalera eta bere ohorea defendatu behar zuenez, dendan aurkitu zuen erratzik handiena erosi zuen eta hura hartuta hasi zen kalera ateratzen. Nahiago zuen benetako sorgina izan mitologiakoa baino.

Norbaitek zerbait esaten badu, zerbait hori egia izango da, ez benetan gertatu delako, beste askok gezur hori sinetsi dutelako baizik.

***Jasone Osoro***

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



### MAIDER LIZUNDIA

IBAMAR ITURGINTZAKOA

**• Bero hauekin jendeak hartzen al du kontuan negurako berogailu sistema?**
Batzuk bai. Irailean asko hasten dira obrekin.

**• Zein da iturgintzan azken berrikuntza?**
Airean gelditzen diren altzari modernoak.

**• Komuneko papelari lekua kenduko dio ipurdia garbitzen duen komunak?**
Ez, garestiak dira eta asko ez dira jartzen.

**• Horma bat zulatu aurretik hartu beharreko neurriak?**
Hodiak nondik pasatzen diren jakin behar da, dena dela, horma lodia bada, ez da ezer gertatzen.

**• Irakurtzeko leku egokia al da komuna?**
Bai, leku lasaia da, jende askok dauka ohitura hori.

**• Itokinak konpontzeko trukorik?**
Iturgintzari buruz zerbait jakinda, saiatu daiteke konpontzen, baina onena profesional bati deitzea da, gremio guztietan. Askotan kalte gehiago egiten da konpondu baino.

**• Dutxa hidromasajea modan al dago?**
Bai eta onurgarriak dira bizkarrerako. Hala ere, masajista baten lana ez du betetzen.

**• Ura aurrezteko metodorik onena?**
Beharrezkoa ez denean iturria itxita edukitzea.




## [AKORDATZEN NAIZ]



### ITZIAR AJURIA

1924an jaioa

## «Andereño»

**25** urte egon nitzan Ikastolan andereño lanetan. Rekuerdo oso onak daukadaz. Hasierako urtiak gogorrak izan ziran. Hirugarren urtera, tituludun andereñua etorri zan, Nekane, eta orduan lasaittu giñan. Nik ez nakan titulurik, eta beti amenazauta egoten nitzan. Sei urtetik gorakueri ezin niuen klaserik eman, txikixeri bakarrik.

62 urtekin jubilau nitzan, baiña beste urtebete egon nitzan plantillan jubilaziorako hobeto geratzeko. Parora juan nitzan gero, eta Eibarko ofiziñan esan zien nik kotizautakuakin 50.000 pezeta gehixagoko jubilaziua tokatzen jatala, baiña ezkongabia nitzanez eta kargarik ez naukanez, kendu egin zien. Ikastolan ahalegiñ haundixa egin zeben azken hamar urtiak ondo kotizauta eukitzeko, baiña ikusiko dogu oin ze etortzen dan, zeozer badatorrela esaten debe, baiña auskalo, igual damutu egingo jakue.



## [GURE BERBAK]

### *Esaera batzuk (2)*

Oiñ hurrenguan, esaera batzuekin hasi gendun beste sailtxo bat, eta gaurkuan horri segittuko diogu.

Inguruetako herrixen aipamenak jasotzen dittuen esaerak batuko doguz gaur. (Gotzon Garate elgoibartar filologo haundiaren esaeren liburu batetik (*30466. Atsotitzak*) jaso dittut hauek).

Exajeratzeko dauken ohitturia dala eta, honela esan izan da eibartarren gaiñian:

*Eibarko txitak, oilluak.*

Halaxe eskatzen omen giñon Jangoikuari eguraldi ona Eibarko eta Elgoibarko festetarako.

*Eibartarrak "komeni bada"; elgoibartarrak, "biou".*

Hona inguruko herrixen beste aipamen batzuk ere:

*Eibartarra, jan belarra, bota puzkarra.*
*Plazentziarrak, zapuak.*
*Altzola-Mendarotan, jendia ona dok.*
*Azkoitixa, mami (gatzato) herrixa.*
*Mendaro, motxaillen herrixa.*
*Plaentxin, zapuak zikin;*
*Maltzaan, katuak dantzan;*
*Elgoibarren, astuak goen eta barren;*
*txakur zaharrak Eibarren, itxurak egin arren;*
*Bergaran, xaguak ganbaran;*
*Deban oilluak txixa egin zeban;*
*Mendaron, azarixak giro on.*

*Jesus Mari Makazaga*



# I. URTEURRENA

***Modesta Etxeberria Santamarina**ren*
oroimenez urteurreneko meza izango da,
larunbatean, hilak 21, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik senideen izenean.



# ALFREDO ETXEBERRIA ELGOIBARKO ALKATEA

# «Udaletxean gauden guztiok herriaren alde lan egiteko borondatea daukagu»

*Duela hilabete inguru hartu zuen Alfredo Etxeberriak alkate kargua. EAJren aldeko botoekin izendatu zuten alkate, eta orain, EA alderdiarekin osatuko dute Udal Gobernua. Maiatzaren 27ko udal hauteskundeak gogorrak izan zirela aitortu digu, baina ilusio handiz heldu dio erronka berriari. Egoera politikoa ez da erraza, baina alderdi guztien elkarlanarekin gauzak erraztu daitezkeenaren esperantza dauka Alfredo Etxeberriak. Gaurkoan berarekin bildu gara, bere bulegoan hartu gaitu eta eroso aurkitu dugu, gustura dago bere lan berrian. Datozen lau urteetarako dauzkan helburu eta asmoak kontatu dizkigu.*



**Zertan aldatu da zure bizimodua alkate zarenetik?**

Lanera kotxerik hartu gabe joatea sekulako aldaketa izan da. Janzkera ere desberdina da, komertzial lana egiteko trajez joan behar izaten nintzen. Hasieran oso arraro sentitzen nintzen etxetik ateratzerakoan.

**Nolakoa da alkate lana?**

Oso polita, herriko eguneroko gauzetaz arduratzen naiz. Hasieran sail guztiak bisitatu nituen eta sekulako munstroa zela iruditu zitzaidan, baina ez dut uste hainbesterako izango denik. Gainera, jende gazte asko dago udaletxean eta horrek abantaila asko ditu. Pozik nago nire lan berrian.

**Nolakoa da Alfredo Etxeberria?**

Ez da erraza norbere burua definitzea! Familia gizona, lagun zalea, euskalduna... Aurkezpen publikoetan euskararako joera handiagoa daukat eta gazteleraz egitea uste baino gehiago kostatzen zait. Egoskorra ere apur bat banaiz, ez dakit hori ona edo txarra den, baina proiektu batean sinisten badut horren alde egiten saiatzen naiz. Hitz gutxikoa naiz eta denen iritziak entzutea gustatzen zait.

**Euskara aipatu duzu. Zein hizkuntzatan funtzionatuko du Udalak?**

Bi hizkuntzatan funtzionatu behar du derrigorrez, datorrenaren arabera hitz egingo dugu. Zorionez, udaletxeko euskara maila ona da eta atentzioa euskaraz jaso nahi duenak ez du arazorik izango. Hala ere, etortzen den jende askok, nahiz eta euskaraz jakin erderaz egiten du. Gure belaunaldiko jendeak erderaz ikasi du eta erderarako joera dauka askok. Gaurko gazteek denek dakite euskaraz, alde horretatik hobeto gaude. Hala ere, erabilera bultzatu behar da etengabe.

**Zein izan da orain arteko unerik onena? eta gogorrena?**

Gogorrena jende aurrean hitz egiteko ohitura falta, elkarrizketak, mahaingurua... jende aurrean espresatzeko erraztasun falta.



# «Plaza Txikia izango da seguruenik legealdiko proiektu nagusia»

Denborarekin hartuko dut konfiantza. Politena berriz, lana bera, oso lan polita da, nahiz eta jakin denen gustua ez dudala egingo. Beti saiatuko naiz ni baino gehiago dakienarengandik gauzak ikasten.

**Hauteskunde gaua gogorra izan al zen?**

Bai. Gipuzkoa mailan zarata handia egon zen eta neurri batean espero genuen, baina zenbaterainoko zigorra jasoko genuen ez genekien. Gipuzkoa mailan uste genuena baino handiagoa izan zen. Elgoibarren ez zen hainbestekoa izan.

**Merkadilloaren gaiak izan al zuen eraginik zigor horretan?**

Merkadilloa arazo handia izan da, ez dago dudarik. Bizi izan dutenentzako egoera oso gogorra izan da: kartelak, manifestazioak, protestak... Udaleko jendeak lehenengo pertsonan bizi izan du. Egia esan, azoka erosoago dago Sigman, baina honek bere alde onak eta txarrak ditu, noski! Baina Plaza Handian ere, ez zen perfektua. Jendea prezio-kalitate onena aurkitzen duen lekura joango da erostera. Kanpainan esan nuen bezala, merkadilloa aztertu egingo dugu, baina herriko merkataritzaren barruan. Merkadilloa astean hiru orduko kontua da eta Elgoibarko merkataritzak 45 ordu hartzen ditu astean.

**Nolako giroa dago Elgoibarko EAJn?**

Orain giro ona daukagu. Orain arte beti hautagai bakarra izan dugu eta aurtengoan bi zeuden. Barne prozesu horretan arazoak sortu ziren, baina alderdi guztietan daude tendentzia desberdinak, nahiz eta helburua bakarra izan. Ia egoera normaltzen den eta denon laguntzarekin Elgoibar hobetzen dugun.

**Nola joan dira gainontzeko alderdiekin egindako negoziazioak?**

Gure lehenengo aukera EA zen eta horren bila joan gara. Negoziazio batean beti daude eskaintzak eta eskaerak, baina ondo joan da, ez da zaila izan. Ezker Batuari ere eskaini genion Udal Gobernuan parte hartzeko aukera, baina oposizioan egotea nahiago zutela esan ziguten. Gobernu Batzordean EAJ eta EA egongo gara, baina gainontzekoen iritzi eta proiektuak ere kontuan hartuko ditugu.

**Zer gertatuko da ANVren botoekin?**

ANVren egoera ez da erraza, baina udaletxetik egin dezakeguna ere ez da asko. Legea oso zorrotza da eta kontuan izanik su-etenik ez daukagula, edozein momentutan atentatu bat egon daiteleka, datorren urtean Madrilgo hauteskundeak direla... oso baldintzatuta gaude. Dena dela, ANV bozkatu zuten 1.000 pertsona horien ordezkariek udaletxean parte hartu ahal izango dute. Aurreko legealdian ere bazeukaten aukera, baina ez zuen funtzionatu. Ez da guk onartzen dugun lege bat, baina gai honetan erabaki guztiak goitik datoz eta herri mailan ezin dugu edozer egin. Elkarlanerako pausuak eman behar dira, gu prest gaude emateko, baina denok eman behar ditugu.

**Zergatik izan behar dute herritarrek konfiantza Udal honetan?**

Bertan gauden guztiok herriaren eta herritarren alde lan egiteko borondatea daukagulako.

**Zer eskatzen dizu jendeak kalean?**

Oraindik ez didate gauza konkreturik eskatu, jende gehienak zabala eta irekia izateko eskatzen dit, herritarren beharrak entzuteko. Kalean ibili eta jendearengandik gertu egoteko eskatzen didate.

**Nolako Elgoibar izango dugu lau urte barru?**

Dotoreagoa izatea nahiko nuke. Berdegune eta parkeak berritzen lan handia egin da, 15 hektarea zaintzen ditugu loretegi moduan eta hori asko da. Herria berritu behar da, alde zaharreko etxe asko ari dira berritzen eta horrekin jarraitu beharko da. Herriguneko trafikoa murrizten saiatuko gara, auzoetan ere erraztasunak jarri beharko dira kotxeak ahalik eta gutxien erabiltzeko, zerbitzu berriak martxan jarri, azpiegiturak berritu, ibaia garbitu...

**Zein izango da legealdiko proiektu nagusia?**

Plaza Txikia izango da seguruenik, baina ezin da aparkalekuan bakarrik zentratu. Proiektua elizatik Bernardo Ezenarro kaleraino doa eta Trenbide kalea ere hor sartzen da. Bere osotasunean landu behar da proiektua, Aita Agirre eraikina ere kontuan hartuz. Kiroldegia handitzea edo berria egitea ere aztertuko dugu. Frontoi eskaera ere badaukagu, eta ikusiko dugu zein den beharra eta erantzuna ematen ahaleginduko gara. Kirol guztiak izango ditugu kontuan. San Lazaro egoitzari ere irtenbidea eman behar zaio. Beharrak aztertu, zer egin daitekeen ikusi eta aurrera begira, Foru Aldundiarekin elkarlanean egoitza berri bat egiten saiatuko gara.

**Nola pasatuko ditu oporrak Elgoibarko alkateak?**

Elgoibar eta Donostia artean. San Bartolomeak herrian pasatuko ditut, lagun artean eta aurten ekitaldi ofizialetan parte hartzen.

## [ PROTAGONISTA ]



### JaimeMartinez

Ordiziako arku tiraketa taldean diharduen elgoibartarra Euskadiko txapeldun izan da eta euskal liga irabazi du arku tiro mekanikoan 3D modalitatean. Tiratzaileek ibilbidean dauden 20 diana jo behar dituzte; haueta animalien irudiak agertzen dira hiru dimentsiotan. Ordizian eskuratu zituen bi sariak bertako arkulari gazte batekin lehia gogorra izan ostean. Garaipenok esku artean dituela irailean hasiko den hurrengo kanpainarako prestatzen dihardu; Gipuzkoako eta Espainiako txapelketak izango dira jokoan eta azken kanporaketa baino falta ez zenean sailkapen orokorreko laugarren tokian zengoen.

## [ NOTIZIA ]

# PPk eskatu die EAJ eta EAri publikoki azal dezatela egin duten Gobernu akordioa

Javier Nuñez PPko zinegotziak eskatu du datozen lau urteotarako PNV eta EAk osatu duten Gobernu taldeak zein asmo dituen herritarrei azaltzeko.

Bestalde, prentsa ohar baten bidez esan du alkatea ez dela berarekin elkartu: "Joku demokratikoari errespetua diot eta ez naiz lortutako akordioaren aurka jarriko. Baina bitxia iruditu zait alkatearen jarrera: alderdi guztietako ordezkariekin elkartu eta herritarrek aukeratu duten zinegotzi batekin, kortesiaz bada ere, batzartu ez izana".

### Herritarren zerbitzura

Gaineratu zuen, batzuek baztertzeko saiakera egin arren eta lanerako oztopoak ipini arren ez dela ahulduko, ez dagoela prest inork gutxietsi dezan.



Nuñezen esanetan, herritarren zerbitzura egongo da udaletxean, "nahiz tristea iruditzen zaidan alderdi politikoentzako bulegorik ez lagatzea udaletxean gelak libre daudenean. Baina trabak gaindituko ditut eta ikusi, entzun eta jasan beharko naute".

## [ ZENBAKIA ]

**1.246**

Hori da Elgoibarko organu emaileen kopurua. Ekainean egin du Alcer Giltzurrun Gaixoen Elkarteak organu emaile berriak lortzeko kanpaina. Aurten 700 organu emaile berri lortu dituzte eta 59.000ra iritsi dira. Elgoibarren ekainaren 9an 14 lagunek eman zuten izena; Debabarrenean 110 izan dira guztira.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Uztailaren 16an sartu da indarrean herri barruan ibilgailuen joan-etorria arautzeko ordenantza. Aurrerantzean oinezkoentzako kaleak izango dira San Bartolome, San Frantzisko eta Errosario kaleak eta Nafarroa enparantza. Ibilgailuak zama lanetarako bakarrik sartuko dira oinezkoen gunera, astegunetan 07:00etatik 11:00etara. Salbuespena izango dira lanean diharduten suhiltzaileak, anbulantziak, segurtasun indarrak, taxiak, mugikortasun murriztua duten pertsonak eta eremu horretako establezimenduetako jabeak, beti ere, pisuzko arrazoia izanez gero.

# Inoiz baino haur eta gaztetxo gehiagok hartu du parte aurten udalekuetan



Elgoibarko Izarrak antolatutako udalekuek zenbakitan honakoa eman dute aurten: 596 aisialdi ordu, 278 haur eta gaztetxo eta 45 hezitzaile. Sekula baino ume eta gaztetxo gehiago izan dira eta eskaintza ere inoiz baino zabalagoa izan da. Hori guztia aurrera ateratzeko herriko zein kanpoko gazteak ibili dira lanean.

**Sentsazioak eta bizipenak**

Udalekuetan bizi izandakoak zenbakiak baino zerbait gehigo direla esan digute Elgoibarko Izarrako aisialdi arduradunek: "Umeen barreak eta jolasak; gaztetxoen urduritasunak eta ilusioak; hezitzaile eta gaztetxoen arteko konplizidadeak; guraso eta aitona-amonen joan-etorriak; azken eguneko negarrak... Hauek denak ere udalekuetan bizitzen dira. Hauek eta antzerako beste hamaika sentsazio eta bizipen izan ditugu aurtengo udalekuetan".

Ekainaren 25ean hasi eta gaur, uztailaren 20an, amaituko dira udalekuak. Aurtengo balorazioa egin ondoren, irailetik aurrera datorren urtekoak prestatzen hasiko dira eta bien bitartean aisialdirako hamaika aukera izango da haur eta gaztetxoentzat.

## Kuadrillategi egitasmoaren hizkuntza helburuak bete dira



Elgoibarko Gazte koadriletan euskaraz egiteko ohitura sustatzeko asmoz Elgoibarko Izarrak Udalaren babesean 12-14 urte bitarteko gaztetxoentzat Kuadrillategi egitasmoa ipini zuen abian. Aisialdi giroko 34 saio egin dituzte eta estreinako esperientzia izanik, oso pozik daude antolatzaileak egindako lanarekin: guztira bi koadrilatako 24 gaztetxok eta bi suspertzailek jardun dute eta hizkuntza helburuak bete dira: "Koadriletako batean euskararen erabilerak nabarmen egin du gora.eta bestean orain gehiago hitz egiten dute euskaraz".

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Ermuaranbidekoen bazkaria

Bazkaria egingo dute irailaren 22an Sigma jatetxean Ermuaranbideko bizilagunek. Txarridunan argazki zaharren emanaldia eta hamaiketakoa izango dira 12:30ean eta bazkal ostean dantzaldia Gelatxorekin. 150 lagunek eman dute izena eta irailaren 7a baino lehen 36 euro ordaindu behar dira Euskadiko Kutxan Ana Aizpuruaren izenean (30350007210071040042).

### Sargoateko erromeria

Debemenek, Morkaikok., Sallobenteko Jai Batzordeak, Elgoibarko Izarrak eta Udalak antolatuta uztailaren 29an, domekan, Sargoaten erromeria izango da. 11:30ean meza izango da eta ondoren salda eta txorizoa banatuko dituzte. 13:00etan German Meabebasterretxea eta Jabier Arrizabalaga Ziarda bertsolarien eta trikitilarien saioa egongo da.

### Bai ala ez lehiaketa

Ekaineko BARRENeko Bai ala Ez lehiaketako irabazlea Aurkene Olaizola izan da. Gabi jatetxean bi lagunentzako afaria irabazi du. Uztailean Zelai Talasoterapia hotelean bi lagunentzako zirkuitua zozketatuko dugu.



### Monrealen lana Institutura

Gemma Monreal margolariak Institutuko ikasleei zozketatzeko eman zien koadroa. Txartel irabazlearen jabea agertu ez denez, pintoreak margolana Institutuan ipintzeko eman du. Beraz, Institutuko langileek eskerrak eman nahi dizkiote Gemma Monreali.

4.117 abonatu dauzka momentu honetan Udal Kirol Patronatuak.

# Zuk erabiltzen al dituzu Elgoibarko kirol instalazioak?

**IGONE ROMERO**
Etxekoandrea
25 urte



“Duela gutxi etorri naiz Elgoibarrera bizitzera eta oraindik ez, baina egingo naiz bazkide. Umearekin joango naiz igerilekuetara. Kirola egitea gustatzen zait.”

**KARMELO LOIOLA**
Jubilatua
63 urte



“Lehen bai, baina orain beste zaletasun batzuk. Mendira joatea gustatzen zait eta ortua ere badaukat. Dena dela, igerian egitea gustuko dut eta akaso egingo naiz bazkide.”

**JOSEBA QUINTAS**
Ikaslea
17 urte



“Bai, erabiltzen ditut. Datorren astean egingo naiz bazkide, Mintxetako igerilekuetara joateko batez ere, baina kiroldegia eta gimnasioan ere ibiltzen naiz.”

**CRISTINA CONDE**
Ikaslea
19 urte



“Ez gehiegi. Etxean denok gara bazkide, baina nik ez diot probetxu handiegirik ateratzen. Batzutan joaten naiz Mintxetako igerilekuetara, baina gehiago hondartzara.”

# [ BAI ala EZ? ]

## Ondo ikusten al duzu ikastetxeak udan irekita edukitzea?

**BAI %77**

“Bai, lehenago edo beranduago zerbait pentsatu beharra dago. Gaur egun bi gurasoek egiten dute lan, ez dago beste erremediorik eta umeen oporrak oso luzeak dira, ezin ditugu zaindu.”

**EZ %23**

“Ez. Egin behar dena da denon oporrak luzatu, San Juanetan denok hartu beharko genituzke oporrak, bai umeek eta baita gurasoek ere. Hilabeteko oporrak motz geratzen dira.”

Datorren asterako... Euskal Herriko lehenengo saloi erotikoa inauguratu da Bilbon.
**Saloi erotikoak izango al du arrakastarik Euskal Herrian?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) **ERANTZUNA**

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.

Talasoterapia Zelai ZUMAIA

Hilabete honetan
2 pertsonentzako zirkuito
bat zozketatuko dugu
**Zumaiako Zelai Talasoterapian.**
Zenbat eta erantzun gehiago,
aukera gehiago!
www.talasozelai.com

[ GOMENDIOA ]

## Uda osasungarria: eguzkia eta itsasoa, neurriz

Eguzkiak zirkulazioa estimulatu, kaltzio maila igo, D bitamina sortzea bultzatu, nerbio sistema orekatu eta, badirudi, nekeari, depresioari eta estresari aurre egiten diola. Hondartzan areagotu egiten dira eragin positibo horiek, itsasoko uraren gaitasun terapeutikoei esker. Hala ere, eguzkiaren eta uraren onurak gutxitu ere egingo dira behar adina neurri hartzen ez badira. Hona hemen udarako zenbait aholku:

• Apurka-apurka hasi eguzkia hartzen. Lehen egunetan ez jarri eguzkitan 20 minutu baino luzaroago.

• Eguzkia hartzeko ordurik onenak goizeko lehen orduak eta arratsaldeko azkenak dira. Ez hartu eguzkirik eguerditik arratsaldeko laurak artean.

• Botikak hartzen ari bazara, galdetu medikuari. Zenbait botikak eguzkiarekin azaleko erreakzioak eragiten ditu. Eguzkitan ez erabili alkoholez egindako perfume, lurrin edo desodoranterik.

• Eman krema eguzkitan jarri baino ordu erdi lehenago, bere osagai aktiboak zeluletan eragiteko denbora izan dezaten. Ordu erditik behin eta bainu bakoitzaren ondoren, eman krema babeslea. Babes-indize handiagoko kremak erabili atal sentikorretan: aurpegian, sudurrean eta ezpainetan. Eta kanpoko kirola egiten baduzu, neurri bereziak hartu.

• Arreta berezia jarri behar da larruazal sentikorrekin eta haur, pertsona heldu, emakume haurdun eta adinekoen kasuan.

• Udan gehitu egiten dira ezpainetako herpesak, eguzkitarako babesik erabiltzen ez delako. Erabil itzazu ezpainetako eguzki-babesleak.

• Babestu begiak eta begi inguruak eguzkitarako betaurrekoak erabiliz.

• Eguzkia hartu edo itsasoan nahiz igerilekuan ibili ondoren, dutxatu ur fresko gezarekin, gatza eta kloroa kentzeko, azalari kalte egiten baitiote. Dutxaren ondoren, krema hidratatzailea edo after-sun erako lozioa eman, azalak eguzkiaren eraginez galdutako hezetasuna berreskura dezan.


## [ OSASUN GIDA ]

### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda
("Dieta erraza" Mehetzeko tratamendua... Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak.)
San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkartea
Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131
Astearte eta ostegunetan:
10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/18-19:30/20-21:30
*Mendaro*
Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30
Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

### OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista
San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri
(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### HORTZ KLINIKAK

Irale
Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79
Zeharkalea, 8 behea (Ermua) Tel: 943 17 71 34
e-posta: irale@irale.com - weba: www.irale.com

### FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia
Eragozpen fisikoa egongo balitz etxez etxeko zerbitzua eskeintzen da.
Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745 (Goiz eta arratsaldez)
Jausoro, 6 behea

Amalurra Fisioterapia
Ordubeteko tratamendu manualak. Goiz eta arratsaldez.
San Frantzisko, 58 behea (Maalan) • Tel.: 943 53 14 63

Olatz Fisioterapia
(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala, prebentzioa, erlajazioa, masaia, reiki)
San Roke, 1 - Tel. 696 821 149
Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

### ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa
San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### PODOLOGOAK

Oinberri
Errosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95
Astelehenetik ostiralera: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

Gidan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

### Nagusien danborradako azken entsegua uztailaren 23an

Santiago Egunean, uztailaren 25ean, nagusien danborrada izango da 22:30ean hasita. Mendaroarrek Aizpe Bustinalde eta Kilimon-Zahar elkarteen laguntza izaten dute danborradan. Hori prestatzeko entseguetan dihartute herritarrek eta azken entsegua astelehenean, uztailaren 23an izango da 21:30ean Ikastolako gimnasioan. Danborradako egunean Debako Musika Bandak lagunduko ditu doinuz mendaroarren danbor hotsak.

### Aurtengo Santa Ana jaietako aurrekontua 50.000 eurokoa da

Egitarauari erreparatuta berrikuntza askorik ez dago aurtengo Santa Ana jaietan. Ohiko ekintzak mantendu eta dantzaldi, kontzertu eta ikuskizunetako taldeak aldatu baino ez dituzte egin. Jaiak antolatzeko zenbateko aurrekontua dagoen galdetuta udaletxean esan digute 50.000 eurokoa dela aurtengoa. Kopuru horretatik zatirik handiena gaueko musika taldeak ordaintzeko eta kale ikuskizunetarako izango da.

MARRAZKI LEHIAKETA

## Miren Legarraren marrazkia aukeratu dute Santa Ana jaietako programarako




Mendaroko ludotekak marrazki lehiaketa antolatu zuen Santa Ana jaietako programaren azala ilustratuko duen marrazkia aukeratzeko.

Aurtengo partaidetza aurreko urteetan baino baxuagoa izan dela esan digute Ludotekan. Hamar lagunek baino ez dute parte hartu lehiaketan eta lan guztien artean Miren Legarrak egindako marrazkia hautatu dute ludotekeko eta udaletxeko ordezkariek jaiak iragartzeko.

**Dantzariak**

Ludotekako arduradunaren esanetan askotariko lanak izan dira. Kontuan hartu behar da 4 urtetik 12 urtera bitarteko umeen marrazkiak zirela, hortaz, oso ezberdinak elkarren artean.

Mendaroko etxe guztietan banatuko dute programa eta azalean joango den marrazkian dantzariak irudikatu ditu Miren Legarrak Mendaroko kale batean dantzan. Jaietan ere hala ibiliko da jendea herrian.

Marrua
Jatxetxea
Igande eguerditan zabalik.
"A" partzela
Itziarko indutrialdea
Tel.: 943 19 94 74
ITZIAR

LANDA
ERRETEGIA
Jaiak ondo pasatu !!
Garagarza, 32 · MENDARO
☎ 943 75 60 28

## SANTANA JAIETAKO EGITARAUA

**Uztailak 21 (zapatua)**
12:00 Paella lehiaketa. Gaztetxeak antolatuta.
22:00 Garagaua. Kontzertuak Herriko Enparantzan. Tempestades, Lobo electrico, Capsula, Nuevo catecismo catolico eta Munlet taldeekin.

**Uztailak 25 (eguaztena)**
18:30 Txupinazoa.
Ondoren, kalejira erraldoi eta buruhandiekin eta Bizi Poza txarangarekin.
19:00 Salbea, Garagartzako elizan.
Gero, kalejira.
22:30 Nagusien danborrada. Aizpe, Bustinalde eta Kilimon Zahar elkarteen laguntzarekin.
24:00 Erromeria Lisker taldearekin Herriko enparantzan.

**Uztailak 26 (eguena)**
SANTA ANA EGUNA
10:30 Prozesioa txistulariekin.
11:30 Meza nagusia.
Ondoren, erromeria trikitilariekin eta bertsolariekin.
15:00 Bertso bazkaria.
18:30 Herri Kirolak Goñati pilotalekuan.
20:00 Kalejira Bizi Poza txarangarekin.

**Uztailak 27 (barixakua)**
19:00 McKensy's taldearen eskutik kale ikuskizuna.
23:30 Erromeria Izotz taldearekin.
Atsedenaldian, Play Back lehiaketa.

**Uztailak 28 (zapatua)**
KOADRILEN EGUNA
12:30 Marmitako lehiaketa.
14:00 Sari banaketa eta koadrilen bazkaria Goñati pilotalekuan.
Ondoren, karaokea.
19:30 Kalejira Kezenge perkusio taldearekin Herriko Enparantzan.
23:00 Suzko erruberak.
23:30 Erromeria Drindots taldearekin.
Ondoren, disko jartzailea goizaldera arte.
* Egun osoan barrena puzgarriak eta zezen mekanikoa umeentzat Herriko Enparantzan.



**Uztailak 29 (domekia)**
UMEEN EGUNA
10:00 Kalejira. Erraldoi eta buruhandiak, txistularien laguntzarekin.
12:30 Haur danborrada. Arno guraso Elkartearen laguntzarekin.
16:00 Haur festa Goñati pilotalekuan: Jokalata.
18:30 Sokamuturra txikia eta pottokak Herriko enparantzan.
20:00 Txan Magoa Herriko Enparantzan.
20:00 Bizi Poza txaranga eta buruhandiekin jai amaierako kalejira.

MENDARO
ALBERTO
Arraindegia
Telf.: 943 03 36 22 • Mugikorra: 600 44 02 55

PUB
ARRATS
Zelaikoa plaza,2. MENDARO. Tel: 943 75 50 58

Amagoia
ileapaindegia
Ondo pasa jaiak!
Tel: 943 03 38 35 • Mendarozabal, 4 behea

Ezenarro
Arotzeriria
Jurdan Ezenarro
Linazasoro7, 2. (estazio parean)
Tel.: 653 707 837 (MENDARO)
jurdaneze@hotmail.com
• Altzariak
• Armairuak (enpotratuak...)
• Tallak
• Erreformak
• Eskailerak
• Ateak, lehioak
• Parket-ak, tarimak...
• Egurrezko estrukturak
• Sukaldeak

MENDAROKO MUSIKARIAK

# HERRIKO MUSIKA HERRIRAKO

*Santa Ana jaiak bertan dira. Joan zen aste bukaeran motorrak berotzeko hainbat ekitaldi izan ostean, oraingoan ere izango dute mendaroarrek zerekin gozatua. Musikak leku esanguratsua du ekitaldi horien artean eta kanpoko musikariekin batera herrikoak ere badira.*

Garagaua zapatu gauean 22:00etan hasita. Orain arte Garagartzako plazan egiten zelako hartu zuen hainbat talde batzen dituen kontzertuak izen hori. Garagartzatik Herriko plazara aldatu dute aurten, ordea.

Bertan jardungo dute Lobo electrico, Capsula eta Nuevo Catecismo Catolico taldeekin batera Tempestades eta Munlet Mendaroko taldeek.

Munletekoek aurrez ere parte hartu izan dute inoiz Garagaua jaialdian. Ez da erraza euren musika estiloa definitzen baina elektronika, rock, punk eta sikodelia doinuak uztartuko ditu bikoteak taula gainean.



*Tempestades taldekoek herrian emango duten bigarren kontzertua izango da.*

Tempestadesekoek lehen urtea dute aurten. Markel Portuk, Ekhi Unanuek eta Josu Tellabidek osatutako taldeak punkrock-a eskainiko diete bertaratzen direnei. Aurrez Mendaron beste kontzertu bat egin zuten gaztetxean eta hau izango dute bigarren emanaldia herrian: "Ilusioa egin digu Garagaua jaialdian gure taldeari tarte bat egitea eta saiatuko gara kontzertuan ahal dugun dena ematen. Etengabe ari gara entseguekin eta kontzertu oro kantu berriren bat ateratzen dugu. Oraingoan ere ez da faltako abesti berririk", esan digu Markel Portu abeslari eta baxu joleak".

PAGOERROTA

iturgintza





- Iturgintza
- Gasa
- Berogailuak
- Sukalde eta bainuen proiektuak
- Igeltseritza

Herriko Enparantza, 10 behea (MENDARO)

Tel.: 943 75 60 44 - Faxa: 943 75 60 37 - Mugikorra: 659 334 323

Leire JANTZIDENDA



Ondo pasa Santanak!

Azpilgoeta, 74

Tel.: 943 03 36 29

MENDARO

### Txaranga doinuak parrandarako

Doinu gazte eta gogor antzekoei bestelako doinuek hartuko diete erreleboa. Gazteak hauek ere, parranda doinuak, Bizi Poza txarangarenak, hain zuzen ere. 1991n sortu zenetik urtero zabaltzen dute jai giroa herriko kaleetan Santa Ana jaietan. Mendaroko 20 gaztek osatzen dute taldea eta kalejiran ez ezik umeen danborradan ere jotzen dute. “Guretzat bereziak dira jaiak; gu gara lehenak giroan sartzen eta besteak jai giroan sartzea da gure nahia”, esan digu txarangako kide Josu Motrikok. Ohiko txarangako doinuak joko dituzten arren urtero joaten dira abestiak berritzen eta aurten ere izango da nobedaderik.

Bestelako musika gustukoago dutenek Mendaron bertan badute zer entzuna. Herriko kaleak alaituko dituzte txistulariek jaietako goizetan. Salbearen aurretik, hilaren 26an, alkate soinua joko dute elizpean Udal agintariak eta herritarrak mezatara sartu artean; Santa Ana Egunean prozesioan, berriz, San Inazio pieza elizatik Santa Anara bitartean. Zazpi mendarotar daude txistulari taldean eta prozesioan zein salbean jarduteaz gain, biribilketa eta kalejirak ere jotzen dituzte kalean erraldoi eta buruhandiei lagunduz batzuetan eta bakarrik besteetan.



*Parrandarako doinuak ekarriko dizkigute Bizi-poza txarangakoek.*

### Trikitixa meza ostean

Batzuek hamaiketakoa jaten dihardute bitartean trikiti doinurik ere ez da faltako jaietan. Santa Ana egunean, meza ostean, erromeria giroa nagusituko da. Jon Ostolaza eta Unai Andonegi trikitilariek urte mordoa daramatzate Santa Ana jaietan jotzen eta aurten ere pozik egingo dute saioa bertsolariekin batera. “Gutxi batzuk badira ere, jendea animatzen da dantzara. Guretzat berezia da egun hori eta gustura jotzen dugu. Gainera, azken urteotan Santa Ana Eguna indartu egin da, gazte jendea ibiltzen da, beraz, aurten ere gogoz gaude jotzeko”, esan digu Unai Andonegik.

Entzuteko, parrandarako zein dantzarako, Santa Ana jaietan musikarik ez da faltako. Herritarren mota askotako doinuak herrirako.


## Ondo pasa Santana jaixak!







Mendaroko Udala

1907-2007 EUSKAL JAIEN MENDEURRENA

# EKINTZA DESBERDINAK EUSKAL JAIAK GOGORARAZTEKO

*Duela 100 urte Euskal Jaiak ospatu ziren Elgoibarren. 1907ko uztailaren 26tik 30era bitartean izan ziren ospakizunak eta hori gogorarazteko ekintza desberdinak antolatu ditu Udaleko Euskara Batzordeak.*

Urte guztian zehar egin dira ekitaldiak, baina ospakizun nagusiak aste honetatik aurrerakoak izango dira. Banan-banan aipatuko ditugu jarraian Euskal Jaien mendeurrena gogorarazteko izango diren ekintzak.

## UZTAILAK 16

### ARGAZKI ZAHARREN ERAKUSKETA

Elgoibarko Udalak eta Ongarrik argazki zaharren erakusketa inauguratu zuten. Mende hasieratik Gerra Zibila (1936 urtea) artekoak izango dira erakusketan jarritako argazkiak. Tartean, XIX. mendearen bukaerako argazkiren bat ere izango dugu ikusgai. Gutxi gorabehera, 70 argazkiz gozatzeko aukera izango dute bertaratutakoek. Erakusketa Kultur Etxean egongo da ikusgai hilaren 28ra arte, astelehenetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara.

## UZTAILAK 17

### "ELGOIBAR MODERNITATEAREN ATARIAN" LIBURUAREN AURKEZPENA

Pello Arrieta historialariak "Elgoibar modernitatearen atarian, 1870-1910. Euskal Jaiak 1907" liburuaren aurkezpena egin zuen. Kultur ekintza baten barnean















egin zuen aurkezpena. Liburu honek Elgoibarren erretratu bat eskaintzen digu, euskal jaiak testuinguru honen baitan hobeto ulertu ahal izateko. Ekitaldiko argazkiak eta bideoak www.elgoibarren.net atarian aurkitu daitezke.

## UZTAILAK 20
### NAZIOARTEKO FOLKLORE JAIALDIA

Gaueko 22:30etik aurrera Nazioarteko Folklore jaialdia izango da Olaizaga kiroldegian. Txina, Peru eta Euskal Herriko dantzak ikusteko aukera izango dute gaur gauean kiroldegira bertaratzen diren herritarrek.

## UZTAILAK 21
### KEPA JUNKERA

Bihar, uztailak 21, ekintza desberdinak izango dira egunean zehar. Arratsaldeko 19:00etan Mauxitxa Txarangaren kalejira izango da. Ordubete beranduago, Ugarte anaiek txalaparta saioa eskainiko digute Plaza Handian. Egunari bukaera emateko, Kepa Junkerak kontzertua eskainiko du, gaueko 23:00etatik aurrera, Plaza Handian. Gauerdian, kontzertuak dirauen bitartean, Plaza Handiaren argiztapen berezia izango da, Astondoa su-etxearen eskutik.

## UZTAILAK 22
### TXISTULARIAK ETA MEZA NAGUSIA

Domeka goizean txistularien dianak esnatuko ditu kaleak. Eguerdiko 12:00etan meza nagusia izango da San Bartolome parrokian. Bertan, Parrokiako Abesbatzak eta Haritz Euskal Dantzari Taldeak parte hartuko dute.

## UZTAILAK 27
### DONOSTIAKO ORFEOIA

Uztailerako antolatutako egitarauari amaiera emateko, Donostiako Orfeoiaren kontzertua izango da uztailaren 27an. Duela 30 urte eskaini zuen azkenekoz orfeoiak kontzertua gure herrian. Polifoniako piezaz osatutako kontzertua eskaini zuten, Ayestaran, Mendizabal eta Erauskin maisuen zuzendaritzapean. Aurretik beste hiru aldiz izan da orfeoia gurean: 1907ko uztailaren 27an, Ildefonso Lizarriturri Elgoibarko musikariak Euskal Jaietarako propio konposatu zuen Salbea abestu zuen, Esnaola maisuaren zuzendaritzapean. 1907ko uztailaren 28an San Bartolome parrokian, "Riga" meza abestu zuen. Jarraian, euskal piezaz eskainitako kontzertua eman zuten Plaza Handian. 1946ko abuztuaren 25ean herria sortu zeneko seigarren mendeurrena ospatzeko kontzertua eskaini zuen Azoka plazan, Gorostidi maisuaren zuzendaritzapean. Polifoniako abestiak eskaini zituzten.

Kontzertua iluntzeko 20:00etan izango da San Bartolome parrokian. Sarrerak dohainik izango dira. Hala ere, kontzertua ikusi eta entzun ahal izateko, ezinbestekoa izango da, aldez aurretik, gonbidapena eskuratzea. Uztailaren 23an, astelehena, hasiko gara gonbidapenak banatzen, Herritarrentzako Arreta Bulegoan eta Kultur etxean.


URKIDI
AHOLKULARITZA
Antonio Urkidi
Josefina Fernandez
Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12
Liberty
Aseguruak


MEKANOSA
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar
★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ PLANOEN BIRREGILEAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX

TAUPADA ANTZERKI TALDEA

# 'Intsekt' kale antzerkia aurkeztuko dute Zarautzen

Zarautzen aurkeztuko du uztailaren 28an Taupada taldeak *Zu zara zarataaa...* lana. Kale antzerkia izango da, mutua eta ikus-erraza. Hiru emanaldi egingo dituzte 18:00etan hasita: malekoian, udaletxeko plazan eta musika plazan.

Ikerketa zentro bat irudikatuko dute eta Zarautz ikertzera joango dira. "Zarauzko Udalak Agenda 21 ekimenaren barruan hainbat ekintza egin ditu eta helburuetariko bat da jendea sentsibilizatzea kutsadura akustikoaren gaiarekin. Edurne Lasak eta Josemari Larrañagak eskoletan zenbait ikuskizun egin dituztenez hortik etorri zaigu antzerki hau egiteko aukera", esan digute Lore Bereziartua eta Aitor Gisasola taldekideek.

Ikuskizunean furgoneta bat erabiliko dute eta esanahi berezia izango du gainera. Taldekideen esanetan, "Ibon Arregik lan polita egin du furgoneta prestatzen: hodiekin, goma-espumarekin. Musika ere oso polita da; Andoni Viñaras arduratu da muntaiaz".

Antzezle gehienak berriak dira, Taupadako antzindari Josemari Larrañaga eta Edurne Lasarekin batera Lore Bereziartuak, Mikel Etxabek, Aintzane Etxaidek, Sugar Etxanizek, Aitor Gisasolak, Mireia Huidobrok, Eñaut Oiarzabalek, Argiñe Rubiok, Leire Ugarteburuk eta Ibabe Urzelaik hartuko dute parte. "Taupadakoek Presoen Aldeko Topagunearen eskariz ikuskizuna prestatu eta orduko elkartutakoek udan ikastaroa egin eta gero beste batzuk taldean sartuta egin dugu antzezlan hau", esan digute.

Entseguekin buru-belarri dihardute eta jendeak nola erreakzionatzen duen ikustea da euren gogoa. Antzezlana beste toki batean egingo duten galdetuta zera esan digute, "jantziak eta muntaia prestatu ostean merezi du antzezlana gehiagotan egitea, baina moldatu egin beharko litzateke, testuinguru bakoitzaren arabera".

Elgoibartarren antzerkia ikusi nahi dutenek datorren zapatuan dute hitzordua.



INTSEKT" Ikerketa Zentroan, ideia berritzaile ikaragarria izan dute. Bertan lanean ari diren ikertzaile ospetsuek, zentzumenen sentsibilitatea neurtzen duten "izaki" liluragarriak edo libelulagarriak sortu dituzte. Ikerketa Zentroak Zarautz herria aukeratu du "izaki" hauekin lehen proba abian jartzeko.







## I. URTEURRENA

***Juliana Zubizarreta Gurrutxaga*ren**
oroimenez urteurreneko meza izango da,
larunbatean, hilak 21, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.



FUTBOLA

# Irabaziekin itxi du aurtengo denboraldia C.D. Elgoibarrek

Ekainean amaitu zen futbol denboraldia C.D. Elgoibarren Batzar Orokorrarekin. Bertan azaldu zutenez, aurtengo denboraldian 22.738 euroko irabaziak izan dituzte. Honela, C.D. Elgoibarrek 136.523 euroko ondarea zeukan denboraldi amaieran. Migel Anjel Lariz Klubeko presidenteak esan zuenez, aurtengo politika ekonomiko zorrotza eta jasotako dirulaguntzak izan dira irabazi honen arrazoiak. Aurtengo denboraldian 24.000 euro emango dizkio Real Sociedad klubak Elgoibarri, kadete, infantil eta alebin mailetako azpiegitura teknikoak indartzeko.



### Gurasoak zuzendaritza batzordera

Batzar Orokorrean aipatu zen beste gai bat zuzendaritza batzordeak daukan jende falta izan zen. Antza denez, arazo hau ez da futbolean bakarrik gertatzen, gainontzeko kiroletan ere arazo berbera baitago. Honi irtenbide bat emateko asmoz, C.D. Elgoibarko jokalarien gurasoak zuzendaritzako kide izateko proposamena luzatu zuen Migel Anjel Lariz presidenteak eta bilerara azaldutako bazkideek onartu egin zuten. Aurrerantzean beraz, C.D. Elgoibarko maila bajuetan jokatzen duten 6 jokalariren gurasoak zuzendaritza batzordeko kide izan beharko dira.

## Elgoibarko Kashima taldeak irabazi du Futbol 7 txapelketa



Norgehiagoka gogorra izan zen Futbol 7 txapelketako finala. Elgoibarko Kashima taldeak Eibarko "Quiero un Brugal" izan zuen arerio. Elgoibartarrak aurreratu ziren markagailuan Condek sartutako golari esker, baina eibartarrek partida berdintzea lortu zuten. Bigarren zatian, Kashima taldekoek bigarren gola egin zuten, baina arbitroak baliogabetu egin zuen. Bana amaitu zuten partida, eta penalty bidez erabaki zen txapelduna. Talde bakoitzak 8 tanda bota zituen eta azken emaitza 4-3 izan zen elgoibartarrentzat.

## Zarta taldekoak Euskadiko Arku Tiraketa txapelketan

Zarta taldeko hiru lagunek hartu zuten parte joan zen domekan Euskadiko Aire Libreko Arku Tiraketa txapelketan. Lehenengo sailkapen saioan Martin Agirregomezkortak 1. postua eskuratu zuen eta Iñaki Badiola 3. geratu zen arku errekurbatuen kategorian. Itzargi Monasterio berriz, 9. postuan sailkatu zen arku konposatuen sailean. Eliminatoria fasean Martin Agirregomezkortak lortu zuen posturik onena, 3. postuan sailkatuz. Guztira 60 arkularik hartu zuten txapelketan.



## 4.117 abonatu Kirol Patronatuan

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak, inoiz baino abonatu gehiago lortu ditu. Guztira 4.117 abonatu ditu, 1996 urtean, Olaizaga Kiroldegiaren ardura hartu zuenetik hona izan den kopururik handiena, alegia. Urtean zehar, egunero bataz beste 1.050 erabiltzaile inguruk erabiltzen dituzte kirol instalazioak. Uda garaian, erabiltzaile kopurua handitu egiten da; Mintxetako igerilekuetan, batez beste, 600 lagun biltzen baitira, egun eguzkitsua bada. Egunik jendetsuenetan, berriz, 1.400 erabiltzaile inguru hurbiltzen dira igerilekuetara.

## Sigmako Pilota Txapelketako finalak bihar jokatuko dira

Sigmako Pilota Txapelketa iritsi da amaierara eta bihar jokatuko dira finalak. Goizeko 11:30ean hasiko da Konde eta Gurrutxagaren arteko partida alebinen mailan. 2. mailan Kepa eta Lizarraldek osatutako bikoteak Xabier Loiola eta Ander Loiolaren kontra jokatuko du, eta 1. mailan Arrillaga eta Egañak Portu eta Txurruka izango dituzte aurrez aurre.

# Merkatua

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

- Etxea salgai Santa Klaran. 3 logela, egongela, bainugela, sukalde handia, ganbara. Dena kanpora. ☎ 617689348

### ALOKAIRUA

- Emakume arduratsuak etxea hartuko luke alokairuan Elgoibarren edo inguruetan. ☎ 699717008
- 4 logelatako etxea alokatzen da Cadizen udarako. 400 euro asteko. ☎ 600067658
- Pisua edo logela hartuko nuke alokairuan. ☎ 677617031
- Aiton-amona batentzako pisua behar da. Igogailuarekin edo kalerako irteera zuzenarekin. Erdigunean, edo gertu. ☎ 639086330
- Pisua alokatzen da Elgoibarren. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. ☎ 630878054
- 25 urteko neska batek pisua hartuko luke alokairuan beste pertsona euskaldun batekin konpartitzeko. ☎ 658700164

## [ AUTOAK ]

- Renault Megane 1.600 autoa salgai. 42.000km, ia 3 urte. Egoera oso onean. ☎ 606675314
- Opel Kadet 1.6s autoa salgai. Egoera eta prezio oso onean. ☎ 626140930
- Autoa salgai. Mercedes markakoa. Gasolioa. Egoera onean eta merke. ☎ 639390808
- Seat Ibiza Sport TDI, 1.9/100hp salgai. 3 ate. Egoera oso onean. Grisa, 2005eko azarokoa. 27.000km. 2010era arteko bermea. Prezioa adosteko. ☎ 675714031

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

- Ofizinarako lokala alokatzen da. 32m². 2 auto aparkatzeko aparkalekuarekin. ☎ 943741149
- Garaje itxia salgai Bernardo Ezenarro kalean. ☎ 615712216

## [ BESTELAKOAK ]

- Borda egokitu bat erosiko nuke. ☎ 680178636
- Kanping handia salgai. ☎ 943741441

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro . Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

### ESKAERA

- Gizona lanerako prest. ☎ 638338816
- Emakumea gaixoak zaintzeko prest, egunez edo gauez. Esperientzia daukat. ☎ 943172896 (Mertxe)
- Emakumea gauez nagusiak zaintzeko prest, edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 610632782
- Neska umeak zaindu edo beste edozein lanetarako prest. ☎ 697352595
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 943742201 **(13:00-17:00 edo 20:30etik aurrera).**
- Emakumea abuztuan lan egiteko prest. Umeak zaindu edo kamarera moduan. ☎ 606169667
- Mutila lanerako prest. Eraikuntzan, pinturan, kamarero, igeltsero... ☎ 943531608
- Emakumea edozein lan egiteko prest. ☎ 943531608
- Portalak garbitzen ditut. ☎ 649632148
- Emakumea nagusiak edo zaintzeko prest. Orduka. ☎ 671476869
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna moduan. ☎ 671742142
- Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 667709439
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 943740305
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko prest. ☎ 667397100
- DBH2ra arteko klase partikularrak emango ditut uztailean. ☎ 695868465
- Mutila igeltsero, kamarero edo beste edozein lan egiteko prest. ☎ 638905932
- Neska lanerako prest. Oso arduratsua. ☎ 659381601
- Neska gaztea umeak zaintzeko prest. ☎ 662250073

### ESKAINTZA

- Kontabilitate klase partikularrak jasoko nituzke abuztuan. ☎ 943742936 (Karmen)
- Elgoibarko enpresa batek proiektista bat eta delineatzaile bat behar ditu. Curriculuma bidali 150 postakutxatilara. ☎ 943741662
- Jatetxerako kamareroa behar da. ☎ 943121262
- Astegunetan tabernarako kamareroa behar da. Esperientziaduna. ☎ 943740404
- Jatetxerako sukaldari laguntzailea behar da. ☎ 943740580
- Tabernarako kamarero euskalduna behar da. ☎ 670654921
- Txuri-Beltz tabernan asteburuetan lan egiteko pertsona euskalduna behar da. ☎ 943741513/943740228
- Pertsona bat behar da Textil Hogar Lagunak dendarako. ☎ 943744457
- Kamareroa eta sukaldaria behar dira. ☎ 943743196
- Pertsona arduratsua behar da 6 urteko umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Astelehenetik ostiralera. Ordutegi malgua. ☎ 943531088
- Mendaroko Udalean ondorengo oposaketak daude: zeregin anitzetako langile bat, zeregin anitzetako ofizial bat eta denbora partzialerako aparejadorea. ☎ 943033282

## ABISUAK

- Joan zen astean aulkitxo bat galdu nuen Madalako parkean panpin morea eta berdearekin. ☎ 943531054
- Igandetik astelehenera bitartean CD mordoa eta CDak gordetzeko zorroa galdu nituen Guass inguruan. Saritu egingo da. ☎ 616610957





Bukatu S. Coop.
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR
MEKANIZATUEN TAILERRA

# [ZORIONAK]



Zorionak **Izaro!** Ondo pasa zure egunean. Muxu handi bat Ikastolako laguntxoen partez



Zorionak **Nerea!** Hilaren 29an bi urtetxo! Muxu handi bat familiakoen eta bereziki, Anderren partez.



Zorionak **Macarena** hilaren 28an 3 urte egingo dituzulako. Gurasoen partetik.



Zorionak **Marisorgin** larunbatean 3 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxeko guztien partez.



Zorionak **Luigi,** xalau hori! Altxa burua eta izan zoriontsu! Txanante!



Zorionak **Arkaute** urte askotarako. Hori dek aurpegi serioa. Gora bihotzak!



Zorionak **Laida** abuztuaren 5ean 4 urte egin zenituelako. Anaia Aner eta familiakoen partez.



Zorionak **Inar** bihar 3 urte egingo dituzulako. Mendaro eta Elgoibarko senideen partez.



Zorionak etxeko berritxuari laster 3 urte egingo dituelako. Ondo pasa parrandan!



Zorionak **Irati** bihar 19 urte egingo dituzulako. Egun ona pasa!



Azkenean 11 urte! Zorionak etxeko guztien partez.



Zorionak **Sugar** zure 3. urtebetetzean. Patxo handi bat etxekoen eta lehengusina Arhaneren partez.



Zorionak **Leidy Katherine eta Cesar Augusto Suarez** uztailaren 19an eta 27an zuen eguna delako. Gurasoen partez.



Zorionak **bikote!** Ondo pasa eguna eta muxu handi bana Ikastolako laguntxoen partez.



Iritsi dira azkenean "pitxi-ezkontza" eta "pitxi-festa". Ondo-ondo pasa eguna eta zoriontsu izan.



Zorionak **Sonia eta Yaiza** hilaren 27an eta 31n zuen urtebetetze egunak direlako. Etxekoen partez.



Zorionak **bikote!** Ondo pasa zuen ezkontza egunean. Familiakoen, koadrilakoen eta lagunen partez.



Zorionak **Manar** uztailaren 8an 6 urte egin zenituelako. Familiako guztien partez.



Zorionak **Ane** abuztuaren 1ean 2 urte egingo dituzulako. Etxekoen partez muxu bat.



Zorionak **Goizeder** abuztuaren 4an 5 urte egingo dituzulako. Ahizpa Eider eta familiakoen partez.

# Zerbitzuak

## [ OKINDEGIA ]

**UZTAILA**
29 igandea BOLINTXO
31 asteartea DOÑA MERCEDES

**ABUZTUA**
5 igandea BOLINTXO
12 igandea DOÑA MERCEDES
15 asteazkena BOLINTXO
19 igandea IBARRENEA
24 ostirala EIZAGIRRE
26 igandea IBARRENEA

**IRAILA**
2 igandea EIZAGIRRE

## [ FARMAZIAK ]

**GUARDIA** 24 ORDUZ

| | |
|---|---|
| 20 | Ibañez |
| 21 | Bidasolo |
| 22 | Bidasolo |
| 23 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 24 | Fernandez |
| 25 | Bidasolo |
| 26 | Bidasolo |
| 27 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 28 | Ibañez |
| | *(* Goizez Etxeberria Santa Ana)* |
| 29 | Ibañez |
| 30 | Zabaleta |
| 31 | Zabaleta |

**ABUZTUA**

| | |
|---|---|
| 1 | Fernandez |
| 2 | Bidasolo |
| 3 | Ibañez |
| 4 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 5 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 6 | Ibañez |
| 7 | Bidasolo |
| 8 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 9 | Ibañez |
| 10 | Zabaleta |
| | *(* Goizez Bidasolo)* |
| 11 | Zabaleta |
| 12 | Zabaleta |
| 13 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 14 | Ibañez |
| 15 | Fernandez |
| 16 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 17 | Fernandez |
| 18 | Yudego |
| 19 | Yudego |
| 20 | Zabaleta |
| 21 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 22 | Zabaleta |
| 23 | Yudego |
| 24 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 25 | Fernandez |
| | *(* Goizez Yudego)* |
| 26 | Fernandez |
| 27 | Yudego |
| 28 | Zabaleta |
| 29 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 30 | Fernandez |
| 31 | Yudego |

**IRAILA**

| | |
|---|---|
| 1 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 2 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 3 | Yudego |
| 4 | Fernandez |
| 5 | Zabaleta |
| 6 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 7 | Fernandez |

** Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.*

**KANPOKO FARMAZIAK**

**IBAÑEZ**
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84








## [ 20 BARIXAKUA ]

**18.00 BERTSOLARIAK ETA TRIKITILARIAK HERRIKO KALEETAN**
Antolatzailea: Euskal Herriko Bertsozale Elkartea

**22:30 ELGOIBARKO NAZIOARTEKO FOLKLORE JAIALDIA**
Txinako "Qiandongnan abesti eta dantza konpainia", Peruko "Jallmay dantza taldea" eta "Haritz EDT".
Olaizaga Kiroldegian
Antolatzailea: Haritz EDT.

**22:30 "NAPOKA IRIA" TALDEAREN KONTZERTUA**
Iratxo tabernan

## [ 26 ZAPATUA ]

**19:00 MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA**
Herriko kaleetan zehar
Euskal Jaia (1907-2007)

**20:00 UGARTE ANAIAK TXALAPARTARIAK**
Plaza Handian
Euskal Jaia (1907-2007)

**23:00 KEPA JUNKERAREN KONTZERTUA**
Plaza Handian
Babeslea: Kutxa
Euskal Jaia (1907-2007)

**00:00 PLAZA HANDIAREN ARGIZTAPENA ETA SUZKO EFEKTUAK**
Euskal Jaia (1907-2007)

## [ 22 DOMEKIA ]

**9:30 TXISTULARIEN DIANA**
Herriko kaleetan zehar

**11:30 ARKU JAURTIKETA ERAKUSTALDIA**
Altzolako frontoian
Haur eta nagusientzat
Antolatzailea: Zubibai Elkartea
Laguntzailea: zarta Arkulari Taldea

**12:00 MEZA BEREZIA: JAUNAURREKO EZPATADANTZA ETA ABESBATZAREN KANTUAK**
San Bartolome parrokian

## [ 27 BARIXAKUA ]

**20:00 DONOSTIAKO ORFEOIAREN KONTZERTUA**
San Bartolome parrokian

## [ 29 DOMEKIA]

**11:00 SARGOATEKO ERROMERIA**
Sargoaten

## ZINE KARTELDEGIA

**ELGOIBAR** HERRIKO ANTZOKIAN



**«Sunshine»**
23, astelehena: 22:30
**«La Kaja Kovak»**
24, martitzena: 22:30
**«Nomadak TX»**
27, barixakua: 22:30
**«Pequeña Miss Sunshine»**
28, zapatua: 22:30
**«Apocalypto»**
29, domekia: 22:30

**EIBAR,** UNZAGA
**«28 semanas despues»**
20, barixakua: 19:30-22:15
21, zapatua: 17:00-19:30-22:15
22, domekia: 17:00-19:30-22:15
23, astelehena: 19:30-22:15
24, martitzena: 19:30-22:15
25, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

LARRAÑAGA AUTOESKOLA
Tel: 943 74 10 11
IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA
Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!
Zatoz informazio eske!

# Atzera begira



**1969**. urteko abuztuaren 10ean ateratako argazkia da honako hau. Arrate Arangurenen ezkontza aurreko agur ospakizunean atera zuten Madalako eskolen parean, gaur egun Malape tabernako etxea dagoen inguruan. Elgoibarko koadrilako lagunez gain, ahizpak, lehengunsinak eta Markinako lagunak ere izan ziren ospakizunean. Hona hemen argazkian agertzen direnen izenak goitik ezkerretik hasita: **Arrateren laguna, Gloria Aranguren, Severi Aranguren, Rosa Tornos, Mª Jesus Otaegi, Mª Teresa Garate, Arrate Alberdi, Ines Unzilla, Edurne Lasa, Nieves Juaristi, Mª Cruz Urzelai, Arrateren laguna, Mariasun Riaño, Mª Carmen Zubizarreta, Montse Perello (†), Dorita Aranguren (†), Esther Arrieta, Egiluz, Coro Rivero, Begoña, Lide (†), Elena, Arrateren lehengusina, Arrateren lehengusina, Marilo Astigarraga, Margari, Rosi Aranguren, Belen, Mª Nieves, Begoña Sorazu, Marisol Odria, Mª Jesus Arostegi, Eugeni, Margarita, Conchi Inza, Begoña Gurrutxaga, Maribego Perea, Luisi Zubiaurre, Mª Jesus Gabilondo, Arrate Aranguren, Paula, Txaro Iglesias, Arrate Astigarraga (†), Maritere Laskurain, Mariglori Perello, Markinako laguna, Markinako laguna, Markinako laguna, Markinako laguna eta Markinako laguna.**

---



*Iñaki*
*Contreras de Castro*

2006ko uztailaren 20an hil zen

## I. URTEURRENA

*Ez agurrik,*
*ez adiorik,*
*gero arte bakarrik.*

**Elgoibarko zure koadrila**

# Sargoateko erromeria

## UZTAILAK 29, IGANDEA



**EGITASMOA**

11:00 Meza
12:00 Salda eta txorizoa
12:30 Bertsolariak eta trikitilariak.
(Bertsolariak: German Meabebasterretxea eta Xabier Arrizabalaga Ziarda).
14:00 Erromeriaren amaiera.

**ANTOLATZAILEAK:** Sallobenteko Jai Batzordea • Morkaiko M. E. · Elgoibarko Izarra · Elgoibarko Udala



# DONOSTIAKO ORFEOIAREN KONTZERTUA

## Uztailak 27 • 20:00etan • San Bartolome Parrokian

## Uztailak 21, larunbata

19:00
Mauxitxa Txarangaren
Kalejira



20:00
Ugarte anaiak
txalapartariak



23:00
Kepa Junkeraren
Kontzertua

00:00
Foruen plazaren argiztapena
eta suzko efektuak

KULTURA SAILA

1907-2007
Euskal Jaiak

kutxa

EUSKO JAURLARITZA